

# Venezuela: Ekonomia, gizartea eta bideragarritasun demokratikoa

**Luis Belaustegi, Iñaki Unzueta eta Victor Urruela**  
EHUko irakasleak

Datozen hamarkadetan bizitza-kalitatea arinago sendotuko duten herriak beren giza baliabideak zerbitzu-gizarteak hobeto funtzionarazteko lanari aplikatzen dizkietenak izango dira, antza denez. Baina salto hau burutzeko gauza izango direnak EEBB, Europako Batasuna, Japonia eta azaleratzen ari diren beste herri batzuk baino ez dira, egun manufakturazko sektore garatua edo garapen arinean daukaten herriak, hain zuzen. Seguruenik, Latinamerika aipatutako talde horren ateoian joango da. Testu honek, errezeta neoliberal neurritz kanpokoek Hegoamerikan, eta zehazki Venezuelan, sarritan izan dezaketzen pozoin-ondorioa salatu nahi du. Idazleak hiru ekintza-biderei alde agertzen dira: nazionalismo-populista indargabetu, gizarte-kohesioa biziki bilatu, eta Estatuaren protagonismoa bultzatu hezkuntzan, osasunean eta etxebizitza arloetan.

In the next decades everything seems to point out that the countries which will increase their life standards more rapidly will be those capable of applying best their human resources to run the societies of services. But only USA, The European Community, Japan and some emergent countries could take that change; those that precisely have nowadays developed manufacturing sectors or in ways of increasing development. It is predictable that Latinamerica can not follow those countries. This text criticises the toxicity that the indiscriminate use of neoliberal recipes could suppose many times in the Southamerican context and more specifically in the case of Venezuela. Referring to this country the authors propose three ways of action: The dismantelation of populist nationalism, the active search of social cohesion and the protagonism of the state in education, health and housing.

## **Ekonomiaren joerak eta paradigma teknologiko berria**

Mende honen bigarren erdirarte, ondasuna sortzeari buruzko arrakasta eskulan-gaiak ekoizteko era gero eta hobetan oinarritu izan da, batik bat.

Zalantzarik gabe, azken berrogeita hamar urteotan fabrikazio-teknologian burututako aurrerakadak izugarriak izan dira. Eskulan-gaien diseinuak, ekoizpenak eta merkatura eramateko ihardunpideak etenik gabe eta poliki-poliki hobetuz joan dira, eta neurri handi edo txikiagoan herri industrializatu guztiak agertu dira honen etekindun.

Antza, datu guztiek ematen digute aditzera industri sektorearen "agorpe-naren" ondorioz aro berri baten lekuko bihurtu garela, herri garatuetan bederen. Eskulan-gaien balio erantsiak beherantz egiten du etengabe eta, ondorioz, ekonomia garatuetako industri sektoreak ekonomia orokorraren baitan pisua galdu eta bere dimentsioak murrizten ditu.

Adibide batzuk besterik ez aipatzearen, industriaren pisuak BPGean 1965etik 1990era honako bilakaera azaldu du: Danimarkan % 36tik % 28-ra, Alemanian % 53tik 39ra, Japonian % 44tik 42ra, eta abar.

Baina hau izanik herri garatuetako joera, garapen-bideetako herrien eboluzioa desberdina da. Denboraldi berean Venezuelako industri sektoreak, BPGari buruz, % 40tik 50era pasa zen; Kolonbiakoa % 27tik 32ra; Ekuadorrekoa % 22tik 42ra, etabar.

Aipatutako portaera hau aldakorra-goago agertzen zaigu beste herri

batzuetan, esate baterako, 1965etik 1990era bitartean eta BPGarekiko ere, hirugarren sektorearen pisua % 55etik 45era jaitsi da Venezuelan, Brasilen % 48tik 51ra igo da, eta Ekuadorren % 50etik 45era egin du beherantz.

Era berean, datozen hamarkadetan aberastasun-sorrera zerbitzu-ekoizpe-naren hobetzean oinarrituko delakoan gaude. Honen ondorioz, euren giza baliabideak zerbitzuzko gizarteak funtzionarazte-lanari hobeto aplikatzen dizkioten herri haiek izango dira, beren bizitza-mailak sendoago jasoko dituztenak.

Daniel Bell-en usteari jarraituz (Bell 1969: 52), hauek lirateke industriondoko gizarte modernoan definitzen duten ezaugarri behinenak:

- 1) Berrikuntzarekiko jakintzaren muntasuna.
- 2) Jakinduri instituzioen lehentasuna.
- 3) Giza kapitalaren betebeharrak estrategikoa, non jakintza funtsezko baliabide bihurtzen den.
- 4) Erabaki-analisi eta simulazioa, sistemen analisia, eta gisa horretako teknologia intelektualen azalartzea.
- 5) Etorkizuna gidatzeko teknika prospektiboen analisia.

Beste era batera esanda, paradigma tekno-zientifiko berri baten sorraren eraginez herrien izatea funtsean aldatzen ari da. Aldaketa honek eragin sendoa dauka herriek betetzen dituzten nazioarteko erroletan. Honela, gure garaiko kulturaren barnean nekez jar genezake zalantzan "jakintza zientifikoaren muntasuna". Zentzu honetan, ezin da dudatan ipini zientziak duen prestigioa gizarte-instituzio gisa. Cicotti, Cini eta De Mariak (1979: 86) azpimarratzen dute,

honi buruz, iraultza teknologiko eta zientifikoaren iraunkortasuna, bai eta gizartea aldatzeko aukerei buruzko ezkortasun zabaldua ere. Eta hauxe eransten dute:

gizarteko zenbait sektorek lan zientifikoaren izakera automatikoki aurrerakoiarekiko fedea gutxitu dute, baita neurri batean komunitate zientifiko eta teknologikoak berak ere, nahiz eta oraindik indarrean diharduen, barne-doiketaren batekin agian, garapenaren indar bultzatzaile gero eta handi eta ahaltsuago gisa...

Marcusek (1979: 43) «aurrerabide teknikoa premiazko helburu da bai kapitalismoarentzat zein askatasuna-arentzat ere» esan arren, ezin ditugu aurrerabide teknikoa eta aurrerabide soziala aintzat hartu, GNBPKo<sup>1</sup> txostenek zuzen azpimarratzen dutenez.

Bestalde, ukatu ezinek da zientzi egintzak sartu eta bere aztarnak utzi dituela gure zibilizazioan. Ez da garrantzi gutxiagokoa “teknologiak” jokatzeko duen errola, ekintzara zuzendutako jakinduria zehatz legez. Teknologia, komunitatearen inguruarekiko nagusitasuna areagotzeko eta komunitatearen beharrianak nahikotzeko erabiltzen diren trebetasun, ezagumendu tekniko, osagarri, erreminta eta tresnez osaturiko taldeetatik definitu daiteke. Horregatik, eta aipatutako definizioa gogoan izanik, ukazina iruditzen zaigu teknologia eta ezagutza tekniko-praktikoak joera nabarmen hazkorra hartu dutela azken hamarkada hauetan, merkatuko salneurriez gidatzen den eta erosi eta saldu daitekeen merkatalgai bilakatu delarik.

Egia esan, gure mundua den “herrixka global” honetan kultura teknologikoa nagusitu da, eta efizientzia eta praktikotasunez gidatzen du bere burua. Irizpide hauek, jakina, ekoizpenaren orientabidea gainditzen dute eta gestioaren razionaltzera, erabakitze ahalmenera eta, zer esanik ez, bizitza sozial eta politikora hedatzen dira.

Era honetan, teknologiak –kultur adierazpide berriak determinatzen duen jakinduri modu gisa–, gizarte-bizitzaren alde praktikoa eta utilitarioa nabarmendu eta azpimarratzen ditu, eta joera berdinzaleak bizkortzen dituen errealitate gisa eratzeko da. Esparru politikoan, teknologiak mota teknokratikoko elitismoz bereizten den botere politikoaren egoerara darabiltza nahitaez.

Inguru honetan, informatikak, automatizazioa eta telekomunikazioaren iraultzak, teknologia berrien erabilera sakonak, erabateko eragina daukate munduaren antolakuntza ekonomiko, sozial eta politikoan. Eta esponontzialki hazten da erabilera hori, gainera. Zentzu honetan, ospe handiko zientzi aldizkari baten testua aipatzen dugu:

seguruenik informatika-iraultzak geure bizimoduak, komunikatzeko, lan egiteko zein bidaiatzeko erak eta gure denbora pasatzeko moduak ere zeharo aldatuko ditu. Baina datorkigun aldaketak ez dauka iraganeko ezagututakoen inongo antzik<sup>2</sup>.

Industri iraultzak gizabanakoaren ahalegin fisikoaren makinekiko aliantzan bazuen euskarria, makina berriek

1. Garapenerako Nazio Batuen Programa.

2. “La Revolution Informatique”, *Science et vie*, gehigarria, 763. zbk.

muga ezezagunetaraino bizkortuko dute adimenaren ahalmena.

1980eko irailean, ELGEk<sup>3</sup> eskainitako datuak maneiatzeko, informazio eta komunikaziorako politiken arazoak eztabaidatzeko bilera-deialdia zabaldu zuen Parisen. Bilera hartan “ordenagailuak eta komunikazioak konbinatuz sortutako sistema boteretsu bezala” definitu ziren teknologia informatiko berriak. Hari telefonikoen bitartez ordenagailu arteko datuen igorketa aspaldi posiblea bada ere, elektronikaren aldaketak, sateliteen erabilerak, zuntz optikoen arloko aurrerakuntzek, informazio-jarioaren areagotzea eragiten dute.

Aldi berean, komunikazioen teknologia informazio digitala zein analogikoaren igorketa gauzatu du, informazio-jarioa arinduz, bolumena handituz eta igorketaren kalitatea hobetuz<sup>4</sup>.

Funtsezko aldaketa hauen beste protagonista mikroprozesadorea dugu, eta honek miniatomizazio-fenomenoari esker:

1.- Aukera berri ugari sortzen ditu, kalkulagailu, ordenagailu eta beste horrelako tresneria eta sistementzat.

2.- Industri egiturak guztiz aldatzen ditu.

3.- Jadanik ezarritako industrietan antolakuntza eta inbertsioaren eta lanekuaren arteko erlazioa aldatu egiten du.

4.- Eskariaren ereduak aldatu egiten ditu.

5.- Software eta hardwarearen arteko kostuen ohizko oreka gogorki aldatzen du.

6.- Kapital/eskulan erlazioa aldatzen du.

Benetako iraultza teknologiko hau gainontzeko sektoreetan ere barneratu da eta bere eragina ihardunpide zein burututako ekoizkintetan nabari da.

Aipatutakoaren ondorioa da paradigma teknologiko berri baten sorrerak, zientzi aurkikuntzaz eta industri berrikuntzaz osatuta, nazioen ekonomia eta nazioarteko ordena ekonomikoa ukitzen dituela, baita orain dagokigun Venezuelako ekonomia ere.

Honela, sektore industrialean oinarritutako eredu zaharraren aurka, teknologia berriek, telekomunikazioek, hizkuntza informatiko berrien aplikazioak, mikroprozesadoreek, sare integratuek, mikroelektronikak, eta abarrek osatzen duten eredu azaletzen ari da, eta aldakuntza teknologiko hauek industri automatizazioari aplikatzeak lanaren izaeraren beraren eraldaketa errazten du. Laburbilduz, berrikuntza-talde horren gauzatzeak gure kontsumitzeko, ekoizteko eta gestionatzeko eraren aldaketa dakar, baina honez gain eta honen ondorioz, kontsumo, ekoizpen eta gestioaren antolakuntzen malgutasuna determinatzen du.

Industria eta zerbitzuetako antolamendu-sistema berriek malgutasuna eta heziketa edozein ekoizpen-ihardueraren funtsezko ezaugarri bilakarazi dituzte. Ekoizpen-iharduera

3. Ekonomi Lankidetzeta eta Garapenerako Elkarteak.

4. OCDE, *Working Party on Information and Communications Policy*, DSTIICCP.

hau ekonomi-ihardueraren esparru guztietako lehiakidetzarako abantaila konparatiboak lortzeko mekanismora zuzentzen da.

Horregatik, gizarte eta ekonomiaren arloetan ezaugarri bihurtuko zaizkigun *lehiaketarako estrategiek* (cf. Richita 1974: 97) erabat determinatuko dute Venezuelako industriaren etorkizuna. Adiera honetan, ekoizpen-sistemaren kalitatean oinarrituriko lehiakidetzak osagarri hauek beharko ditu: teknologia bereganatzeko gaitasuna, industriaren barne-egituraren garapena eta eskulan koalifikatua sortzea.

### **Hezkuntza-sistemaren zeregina**

Lehenago aipatu dugunez, industri garapenak berak hezkuntza-sistemari ezarritako eskakizun aldakorra antzinatik datorren arazoa da, nahiz eta egun erabat nabarmentzen den.

Hain da garrantzizkoa esandakoa, belaunaldi berrien ongizateari irtenbide bidezko eta egokiak bilatu nahi baitzaizkio, komenigarri dela gogoan izatea koalifikazio-premien aldaketak eta hezkuntza sistemaren barnetiko heziketa tekniko-profesionalaren antolamoduak.

Historikoki gizarte-beharren eta hezkuntza-sistemaren arteko desfasea izan da. Disfuntzio hau zaila da gainditzen, gehien batean gizarte-egitura esklerotikoez dirautelako eta aldaezinezko antolamendu-era zaharkituek irauten dutelako. Industri eta hezkuntza-sistema bera dira gizarte-baldintza berrietara egokituriko pertsona gaituak hezitzeko oztopo garrantzitsuenak. Zentzu honetan, idazle asko ezkor agertzen dira egungo gizartearen garapenari buruzko zientziaren zereginaz.

Aurreko gogoetek, non aldakuntza teknologikoa ekoizpen-sistemaren ezaugarri oinarritzkoena den, oso zentzu zehatza hartzen dute. Industriarentzat aldakuntza teknologikoak energi-kontsumoa urritu, kostuak gutxitu, puntako teknologia ezarri eta nazioarteko mailan ekoizkin konkurrenteagoak lortzea bilatzen du, alegia. Hezkuntza-sistemak, bene-benetako desafio baten oinarria osatzen duten helburu hauek, bere gain hartu behar ditu, ezikusia egin gabe, baldin eta behar den giza kapitala gauzatu nahi bada.

Bestalde, behin lanean puntu honetara iritsi ondoren, teknologia "langabezi sortzailea" ote den eta zentzu sozialik ba ote duen da geure buruari egin behar diogun galdera, azken finean langabetuen kopurua gehituko duten teknologia berrien garapenaz ari gara eta. Zein da hezkuntza-sistemak bete beharreko zeregina errealitate honen aurrean? Nola piz dezake sormena gazteengan batik bat, hauek beren aukerak urriak direla jakinik?

Zentzu honetan Monzak (1972: 71) hauxe dio:

Parametro tekniko agregatueta ziurtatzen diren aldaketa historikoez, eragin bat-batekoak dituzte nabarmen azpimarraketarik behar ez duen aldagai-talde batean. Ekoizkortasuna gehitzeak gauzatuko du, zer esanik ez, produkzio handiagoa biztanleria okupatuaren kopuru berberaz, baina, aldi berean, biztanleria landun urriagoa beharko du produktu berbererako. Hau da, ekoizkortasunaren gehitzeak ekoizkin orokorraren handitzea dakar, baina litekeena da kopuru berbera ekoiztea jende gutxiagorekin. Ondorioz, sistemaren ekoizteko denbora gehitzeak berekin dakar

enplegua sortzeko ahalmenaren ahulezia historikoa.

Idea honi buruz, Alberto Moncadak (1979: 102) ikuspuntu oso erradikala du:

Lan-satisfakzioa debalaturik edo biziki gutxiturik, kontsumoari eutsirik, automatizazioaren kimera zaharraren zabaleraren aurrean gaude. Zein da zergatia eta zer ondorio ditu dialektika honetan? Ekoizpen-injineruen ustez, nahi izanez gero, eta lan eta kapitalak onarturik, lan-prozesuetan jadanik indarrean dagoen pertsonal-murrizketa oraindik handiagoa egin daiteke, bai eta, zer esanik ez, aditu batzuen kontrol noizbehinkakoarekin trebetasun gutxiko pertsonak mantendu eta funtzionarazi ditzaketan makinez osaturiko lan-prozesuen sinplifikazioa ere.

Beraz, alde batetik teknologiak langabezia sortzen du, baina bestalde ekonomia orokorraren berraktibazioan eragina duelako, ekoizpen-iharduekin erlazio zuzena ez duten beste lanpostu-eskari batzuk sortzen ditu, merkataritza, heziketa, eta oparotasunezko gizartearen zerbitzuen arloko beste prestazio berezko batzuk.

Irtenbide zaileko dilemaren aurrean gaude, baina ez dago hezkuntza-sistemak eragina jasango duelako zalantzarik. Ikuspuntu honetatik, langabezia eskulan-eskariaren behera-kadaren ondorioa da, baina baita pertsonalaren lanpostu berriekiko prestakuntzarik eza ere. Irtenbideak ekonomia eta hezkuntzaren alorrekoak dira. Ekonomiaren berraktibatze beharra begi-bistan dago, baina aldi berean heziketa-sistemak trebetasun berriak sortu behar ditu. Trebetasunak sortzeko ihardunpideak ez du gaur eguneko enplegu-egitura bakarrik kontuan izan behar, industria etenik gabeko aldaketa teknologikoaren

prozesuan baitago.

Orain arte, hezkuntza-sistemaren gaineko gizarte-eskaerei buruz aritu gara, hura erantzuteko gauza balitz eta garatzen ari den industri egitas-morako behar diren baliabideak sortzeko gauza balitz bezala, alegia. Bonvalent-ek (1981) eskola sormena areago-tzeko eta behar den beste perfil egokia sortzeko gauza ote den galdetzen du. Eta hauxe esanez erantzuten du:

Zoritxarrez, erraz komentzitu gaitezke erantzuna ezetz denaz. Eskolako giroa eta honen sorlekuak diren egiturak, aldeni daude oso helburu industrialak burutzeko egokiak diren etatik, inongo zalantzarik gabe.

Alberto Moncada (1979: 18) erradikalago azaltzen zaigu puntu honetan, hezkuntza-sistemak beharrezko baliabideak ez eratzeaz gain, ezinezkoa zaiola ere, adierazten duenean:

Hezkuntza-sistemak nola hitz egin, buruz nola ikasi, nortasun kulturala, eta lanerako portaera-ohiturak irakasten ditu baina hezkuntza-sistemak ez du laneko ikaskuntza ordezkatu.

Moncadaren ustean, ekonomiak hezkuntza-sistemari egin diezaiokeen edozein eskaerak ez dauka batere oinarririk, zeren eta –zentzu honetan– alferrikako lana da zenbait aldaketa teknologikoren arabera lan-harremanak berregokitzea, edo langileen trebetasunak gehitzea egin eta pentsatzeko erak aldatzeko asmoz. Lehenengoz, heziketa-sistemaren jatorria bera ez dago ekoizpen eta lan-merkatuari lotua, goi-mailako lanbide-mota batzuk izan ezik. Bigarrenez, bai ezaugarri ideologikoen eta bai antolakuntza erraldoiaren inertzia berezkoak sortu dute heziketa-instituzioen zurruntasuna.

Laburbilduz, teknologia berriak sekulako eraginez ari dira sartzen industri egituretan. Fenomeno honek moldaketa handiak sortzen ditu, eta hezkuntza eta ekoizpen-sistemak ez daude premia eta eskaera berriei behar bezala erantzuteko prest, aipaturiko sistema horien joera inertzialak direla eta.

## Mundualizazioa

Mahaigaineratzen ari gara ekonomiaren hirugarrenketaren fenomenoa. Honek, internazionalizazioarekin batera, datozen urteen eszenatokia osatuko du. L. Velascok (1992: 70) hauxe dio:

Ekonomien internazionalizazioa gertatzen ari da, bai *de facto* (nazioen ekonomia gero eta eraikiagoen elkar-loturek gauzatzen dute elkarreagina) zein *de iure* (integrazio-ihardunpide erregionalak eta AMAO<sup>13</sup> bezalako erakundeen disziplina aldeanitzak sortuta), eta horren eraginez nazioen aukera ekonomikoak urritzen dira, zeren eta -bide-, informazio- eta komunikazio-teknologiaren garapenaren poderioz- eskaeren eta itxarobideen aldi bereko *mundializazioa* burutzen ari da.

Beste idazle batzuentzat, globalizazioa atzerrian egindako inbertsioei buruz aritzea da, batik bat. 1990eko amaieran, atzerrian egindako inbertsio zuzena (eskulan, higiezin, lehengaien erauzketa, finantza-instituzio, etabarreran egindako inbertsioak, beren nazioen mugez kanpo egindakoak, alegia) bilioi t'erdi dolarreko kopuru ofizialera iritsi zen, hamarkada horretan hirukoiztuz eta ekonomia nazionalak higatuz (The Editors 1992: 1-18). Egia da bestalde, inbertsio horien

% 85 herri garatuen artean izan zela gogoan izan beharra daukagula.

Nola edo hala, egungo joera merkatu gatibudun barneranzko ekonomia-  
ren eredia lagatzearen alde azaltzen da, ekonomia zabaldu eta iragazkorrez ordezkatzu.

Joera ekonomiko berri honen ondorioz estatuaren zeregina nazio-ekonomia mundu-ekonomiara egokitzeko tresna soila izatera mugatu da.

## Eredu neoliberala

Aldi berean, ideia kontserbadoreak bizkortzen ari dira beren *estatu gutxiago eta merkatu gehiago* lemapean: solidaritate eta berdintasun gutxiago, berekoikeria eta eraginkortasun gehiago. Alde batetik, industria eta botere militarra, antolaketa, merkatua eta arrazoi instrumentalarekin batera. Bestetik, pertsonarteko harremanen mundua, nortasuna eta kulturari buruzko obsesioa. Laburtuz, ordena teknoekonomikoa, eta ordena politiko eta kulturala aurrez aurre.

Zehatzuz, erantzun liberalak hiru jokabide indartzen ditu:

- 1) Kontraekintza monetarista, zeinek zalantzan jartzen dituen teoria ekonomiko keyneszaleak.
- 2) Kontraekintza pribatuzale eta antiestatalista, zeina ekonomiaren sektore publikoaren murrizketaren alde azaltzen baita, horretarako bide hauek erabiliz: desregulazioa, zerbitzu publikoak urritzea eta enpresa publikoen pribatizazioa.
- 3) Berdintasunaren aurkako kontraekintza, Ongizateko Estatuaren politika banaketazaleak salatuz.

5. Arantzel eta Merkataritzari buruzko Akordio Orokorra.

Latinoamerikari dagokionean, NMFk emandako aginduak irizpide monetaristarekin bat datoz. Diagnostikoa «eskaria gehiegizkoa izatea» da. Eskaintza-faktore eta egitura-faktoreen eragina ez da gogoan hartzen. Errezeta bera erabiltzen da kasu guztietan, herri bakoitzari dagozkion sintomak kontutan hartu gabe. NMFren lehengo neurriekiko desberdintasuna honetan datza: orain inflazioaren aurkako neurriek zorraren osotasuna gutxitzea dute helburu, adibidez, inportazioak murriztuz eta baliabideak askatuz horrela esportazioak gehitzeko eta barne-eskaria gutxitzeko asmotan. NMFren egokitze-programak trukaketa eta inportazio-murrizketen liberalizazioa, kapitalen joan-etorrien askatasuna eta atzerriko inbertsio zein esportazioak onestea eskatzen du. Inflazioa kontrolpean jartzeko politika orokorrek banku-kredituen kontrola, interes-tasen gorakada eta salneurriak kontrolatzeko sistemak eraistea dakarte. Urritasun-programa hauek maila probreenen diru-sarrera errealetan azaltzen dute beren eragina, zeren elikagaietarako subsidioak murriztu edo ezabatzea, soldata errealak gutxitzea, langabeziaren gehikuntza eta abar baitakarte (Ground 1984: 12). Agerian dago jokabide ekonomiko neoliberalen indarrean jartze ortodoxoak gizarte-haustura larriak sortzen dituela, biztanle-talde handiak euskarririk gabe gerarazten dituelarik, sistema demo-kratikoak arrisku bizian jarriz.

A. King eta B. Schneiderek (1992: 228) diotenez,

merkatua gaizki hornitua dago epe luzeko eragin, belaunaldiarteko erantzukizun eta jabego komunaren baliabideez arduratzeko. Merkatuak epe luzeko seinalez funtzionatzen du oinarrian, eta horregatik bere indikazioak larri gezurrezkoak izan daitezke

epe luzerako premiei aplikatzen direnean.

Ondorioz, ekonomia eta herrien garapenaren beste ikuspegi batzuk daudelakoan gaude, globalizazio komunaren ihardupide hori alde batera utzi gabe, min gutxiago sortuz, eta gizartea neurri txikiagoan desegituratuz, garapen onargarria, bidezkoa eta gizazalea segurtatzen dutenak.

Zentzu honetan garrantzizkoa dugu azpimarratzea *giza garapenaren* kontzeptua. Helburu makroekonomiko batzuk ezinbestekoak dira, baina beti helmuga gizabanakoa delarik, hau da, pertsonaren garapen kualitatiboa, zeren GNBPrek Giza Garapenaren 1990eko txostenak adierazten duenez (Desarrollo 1990: 4-5), ez dago hazkunde ekonomikoa eta giza aurrerakuntzaren artean halako harreman zuzen eta automatikorik, eta garatzen ari diren herriak ez dira giza garapenaren truke ordaindu eta, era berean, ez dira beren hazkunde ekonomikoari kasurik ezin egiteko bezain pbreak.

Horregatik, eta esana daukagunez, hazkunde eta Venezuelako ekonomia mundukoan barrena kokatzeari uko egin gabe, gauzatzeko modukoa ikusten dugu inperatibo makroekonomiko batzuk lortzea, ondorio hauek konbina ditzakeen politika ekonomiko batez: gastu militarrik murriztu, ekoizkortsuna gehituz, enpresa publiko inefikazkoen gestioa hobetuz, eta helburu ongi zehaztu gabeko subsidioen kontrolaren bidez. Azpiegitura, etxebizitza, osasuna eta zeresanik ez, hezkuntza, aldiz, hobetzearen aldeko ekintzak areagotu eta gehitu egin behar dira.

### **Kontraekintza nazio-populista**

Nabaria da Latinoamerikan, Vene-



zuelan batik bat, nazionalista-populista motako ereduetera behin eta berriz itzultzeko konstante historiko baten izatea. Ribeirok (1991: 24) bete-betean azpimarratzen du:

Ereduek isladako modernizazio eta urbanizazio kaotiko eta goiztarraren prozesua jasaten duten gizartearen subproduktua ematen dute (...). Lider patrizialen kontroletik askatu berria den hautesleria bereganatzeko erabiltzen duten demagogiaren tamainaz ezagutzen dira ereduok.

Baina, are gehiago, formula politiko hauen indarrean jartzeak eginkizun okerra ematen die sektore militarrei, politika horien legitimatzaile eta epaile bihurtzen baititu.

Ideologia honen garaipena herri garatuen paradigma ekonomikoen arbudioan oinarritzen da, orokorki deskalifikatuz aipatutako eredia, eta ondorioz, ezin dute ezagutu ereduak duen zenbait osagarri ezinbesteko, hala nola, ikerketa eta garapen-prozesuen garrantzia, giza baliabideen formazio eta kalitateak daukaten balio estrategikoa ekonomian, gune ekonomiko pribilegiaturik eza eta, orokorrean, ekonomia eta merkatu-prozesu mundialen globalizazioa. Modu honekin, eta orokorrean aurreko eredia ezeztatuz, estatuaren papera ekonomian berrindartzen duen *barneranzko* eredu ekonomiko baten alde agertzen dira.

Modelo populista honek, azken finean, politika babeszale eta estatalistak *per se* aurrerakoiagoak direla ekonomiaren liberalizazioaren aldeko apostua egiten dutenak baino defendatzen du. Gure ikuspuntutik, esandako baieztapena zalantzan jartzeko beste frogaren enpiriko bat daukagula koan gaude. Eztabaidak ez du publi-

koa-pribatua *continuum*-eko muturretan oinarritu beharrik, ekonomiaren funtzionamendu zuzena eta gizarte-eraginkortasun handiagoa segurtatuko duen proposamen-mota hartan baizik.

Politika edo neurri bat ez da *per se* ezkertiarra edo eskuindarra, aitzitik, haren kalifikazioa inguruaren eta lortu nahi dituen helburuen arabera izango da. Azken finean, ongi ezarrita utzi nahi duguna da inefikazia, ustelkeria, eta burokrazia ez direla etorkizuneko eta bidezko eredu ekonomikoaren nortasun-ezaugarriak. Hau da, egun inoiz baino gehiago, XXI. mendearen hasieran, gune supranazionaletan integraturiko eredu baten alde egin beharra dago, etorkizunerako politikak diseinatzeko gauza dena, efikazia ekonomian, lanpostu errealean sorketa, aberastasunaren banaketa, eta abar konbinatuz. Zentzu honetan, integrazio eta kooperazio politikoen prozesuen garrantzia nabarmena azpimarratzekoa da, merkatu gaitibuak alde batera utziz, eta mundu-ekonomian integrazio erregional egokiagora daramaten ahalmen produktibo zein politikoak gehituz.

Paradigma aldatzeko ihardunpide honek tentsioak eta desoreka estrukturalak sor ditzake lehen momentuan, baina epe ertainera, uste dugu, etorkizunari aurre egiteko baldintza hobetan jartzeko gaitueta, garapen iraunkor eta sostengatua ziurtatuz.

### **Gizarte-desegituraketa**

Desegituraketa eta deserakundetze sozial eta politikoari dagokionean, esan behar dugu *Acción Democrática* alderdiak egindako politikaren ageriko porrota eta Venezuelako biztanleek adierazitako desenkontuaren arra-

zoiak, zergati sakonagoetan bilatu behar direla.

Lehenik, Venezuelan tradizio sozialdemokrata sustraitutakorik ez dagoela uste dugu. Mota sozialdemokratako erakunde latinoamerikarrak arrazoi bigatik eratu ziren oinarrian: beren filosofia politikoak argudio programatiko berrietara moldatzeko, eta nazioarteko laguntza lortzeko Internazional Sozialistako partaideak izanik, honek foro politiko eta ekonomiko garrantzitsuenetan eragina daukalako.

Bigarrenez, izango dira agian Venezuelan eredu sozialdemokrataren garapen eta ezarpen osoa eragotziko duen zenbait kontraesan estruktural; mundializazio-prozesuaren ondorioa eta horretan Venezuelak duen eginkizun sekundariotik datozen kontraesanak, alegia, kanpo-zor sendoak sorturikoen gain. Egitura-defizit horiek dauden arren, giza aurrerakuntza eta garapen ekonomikoa gauzatu daitezkeela uste dugu, zeren eta aurrerago ikusiko dugunez, ez baitago hazkunde ekonomikoa eta giza aurrerakuntzaren arteko lotura automatikorik, eta bestalde, garapen-bideetan dauden herri batzuek lortu dituztelako gizarte-ongizateko maila dexenteak.

Uste dugu hirugarrenez, demokrazia edukiz hustutzen ari dela, Parlamentuko debate askok eduki teknikoegia daukala, eta Venezuelan eragin handia izango duen erabaki asko Parlamentuz kanpo hartzen dela. Egoera honek presio-taldearen egintza errazten du, sistema politiko legezko eta konstituzionaletik kanpo dauden zelula politikoak *-cogollos-* indartuz eta benetako arbitro bihurtuz.

Egia da, fenomeno hau Venezuelan ezezik beste latitude batzuetan

ere ikusten dugula. Ekonomiak antza denez, errealtate osoa tindatzen du eta kanpo-exigentziek gai ekonomikoetan, bai NMK bai EEEtikoek, barne-egoera baldintzatzen dute.

Era berean azpimarratu nahi dugu gizartearen eskaerei erantzuteko moduan legokeen estatu-aparatu moderno eta eraginkorraren falta.

Azkenik, Venezuelako gizartearen klase, kategoria zein gizarte-taldearen desintegrazioa dugu ezaugarri garrantzitsua; azpimarratu behar dugu gainera, esate baterako erdiko klaseez ari garenean kategoria zabal eta heterogeneo bati buruz mintzatzen garela, non gutxiengo txiki batek bakarrik jokatzen duen zeregin eraginkor eta modernizatzailea.

Laburrean, gure ustez Venezuelako gizarteak ondoko ezaugarri azpimarragarriak ditu:

1.- Tradizio demokratikoaren mitoa-  
ren amaiera. Venezuelarrak, *Zortziko Taldea*-rekin batera, galdera hau egiten dio bere buruari: Zenbateko pobrezia jasan dezake askatasunak?

2.- Sistema demokratikoak atzera egiteko arriskua.

3.- Ordena politikoaren eta sozio-ekonomikoaren arteko erlazioaren haustura.

4.- Erdiko klase eta beste herri-sektoreen bizitza-baldintzen narriadura.

5.- Gizarte-sare behin-behinekoak eta instituzio publikoen ahultasunak ezegonkortasun politikoa gehitzen dute.

Esandako guztiagatik bat gatoz Alain Tourainekin (1989: 22) ondokoa

esaten duenean:

Analisia ezin da asmo normatiboetatik aldendu: nola gehitu beren historia kolektiboaren gaineko eragile venezuelarren ekintza-ahalmena, nola indartu eragile estrukturalak –enpresariak, sindikatuak, administrazio publikoa edo intelektualak–aldi berean baliabideak mugitzeko ahalmena eta iragan politiko-kulturala interpretatzeko gaitasunagatik beren alde dauden beste eragile batzuekin sendoago elkartuko direlarik. Eta hori guztia nola burutu eragile venezuelarrak etorkizuna antolatzeke agente bihurtzeko.

Artikulu honetan zehar elkar loturik agertzen zaizkigun bi tesi defendatu ditugu. Lehenbizikoa, ekonomiaren hirugarrenketaren ihardunpidearen oinarrian kalitatezko hezkuntza-sistema eta I+G zein giza baliabidetan garrantzizko inbertsioak daudela; eta bigarrena, aldagai eta indize makroekonomikoak baino garrantzitsuagoak direla pertsonak, eta benetan garrantzizkoa dena haien garapena dela. Beraz, bai garapen ekonomikoari, baina gehienbat, bai giza garapenari. Hau da, lehendabiziko gauzak eta behinenak hauek dira: populazioarentzat bizitza luzeago eta osasuntsuagoa lortzea, denontzako hezkuntza, lana eta jubilazio duina, askatasun politikoak eta giza eskubideei begiramena. Laburtuz, pertsonen ziurtatzea garatu eta hazteko aukera zabalagoak. Eta ez beza inork pentsa egoera ekonomikoak giza garapenerako aukerak mugatzen dituenik, garapen ekonomiko txikiko zenbait herrik lortu baititu giza garapeneko maila dexenteak, eta alderantzizkoa, 1990eko GNBPrentxostenean agertzen denez:

Herri aberats industrializatu askoren giza arazo ugariak frogatzen dute

sarrera-maila altuek, berez, ez dutela ziurtatzen giza aurrerakuntza. Egia xinplea da ez dagoela lotura automatikorik diru-sarreren areagotzearen eta giza aurrerakuntzaren artean. Garapenaren gaineko analisiak ahaleginak egin behar ditu, batik bat, aipaturiko harremana gauzatu eta sendotzearen. Hemen, giza garapena hitzak, bai gizabanakoen aukerak gehitzeko prozesua zein lortu duten ongizate-mailaren gehikuntza esan nahi du.

## Ondorioak

1.- Azaleratzen den paradigma ekonomiko berriak, gure ustean, gune ekonomiko pribilegiatu, merkatu gatibu, eta abarrekin bukatzea dakar. Egitura-arazoen irtenbideak aurkitzeko honako hauek bete behar dira: benetako errealitatea ezagutu, gizarte-egiturak indartu, gizarte-eragileei protagonismoa eman, eta egin beharreko erreformak gauzatzeko aproposak diren egitura naziozgaindikoak sortzea.

2.- Zeharo beharrezkotzat ikusten dugu gizarte-eragileen indartzea eta instituzioen prozesuetan gizarte-zibilaren partaidetza bultzatzea.

3.- Egungo Venezuelako errealitatea, nazionalizazio *versus* pribatizazio eztabaida *a priori* filosofikorik gabe ikertu behar da. Hau da, neurri bat ez da berez aurrerakoi edo atzerakoia; bere izatea helburu, inguru, eta abarren arabera da.

4.- Pribatizazio kontzeptua absolutizatzearen aurka gaude. Osasun, hezkuntza, gizarte-zerbitzu, eta abarren beharra –desberdintasunen orekagileak– ezin da merkatu pribatuaren edo familiaren eskuetan geratu, zeren horrek sufrimendua handituko bailuke

gizartean eta barbareria eta gizarte-darwinis-mora zuzenduko baikintuzke.

5.- Ekonomiaren mundializazioa ukaezina eta saihestu ezineko errealtatea da Venezuelarentzat, eta honek gizarteak bere gain hartu beharreko egitura-arazoak planteatzen ditu. Kalitate eta konkurrentzi arazoei aurre egin behar zaie, eta horretarako garapen teknologikoa, giza baliabideen hezkuntza arautu zein arautugabea, eta I+Gri buruzko nazio eta nazioz-gaindiko politikak, etorkizunerako ingenieritza asmatzerakoan gogoan izateko moduko estrategiak iruditzen zaizkigu.

6.- Venezuelako ekonomiaren konkurrentzia dinamikoa, gure ustean, osagarri hauetan oinarritu behar da: berrikuntza teknologikoan, gai eta zerbitzuen kalitatearen gehikuntzan, ekoizkin berrien sorreran eta antolaketan eta gestio-tekniken hobekuntzan.

7.- Zentzu honetan, hezkuntza-sistema arautuak eta arautugabeak joka dezaketen betebeharrak konbentziturik gaude, osterantzean Venezuelako ekonomiaren lehiakidetasun eza, ekoizkortasun falta eta langabezia areagotuko dituen mekanismo bihurtuko baita.

## Bibliografia

- Bell, D., (1969): *The Balance of Knowledge and Power*, MIT.
- Bonvalent, M., (1981): *L'education au service d'une politique d'innovation. Preparation du Huitieme Plan*, Paris.
- Cicotti, Cini, De Maria, (1979): *La producción de la ciencia en la sociedad capitalista avanzada*, H. Rose eta S. Rose, Mexiko.
- Desarrollo, (1990): 17.zbk., 1990eko Txostenaren Lehenbiziko Atala.
- Ground, R.L., (1984): "Ortodox Adjustment Programmes", *CEPAL Review*, 23. zbk.
- King, A. eta Schneider, B., (1992): *La Primera Revolución Global*, Círculo de Lectores,artzelona.
- Marcuse, H., (1979): "La angustia de Prometeo (25 tesis sobre técnica y sociedad)", *El viejo Topo*, 37, 43.
- Moncada, A., (1979): *La adolescencia forzada*, DOPESA,artzelona.
- Monza, A., (1972): "La teoría del cambio tecnológico y las economías dependientes", *Desarrollo Económico*, IDES, Buenos Aires.
- Myrdal, G., (1966): *El reto de la sociedad opulenta*, FCE, Mexiko.
- Ribeiro, C., (1991): *Nueva Sociedad*, Caracas.
- Richita, R., (1974): *La civilización en la encrucijada*, Madril.
- Touraine, A., (1989): "Los problemas de una sociología propia en América Latina", *Revista Mexicana de Sociología*, LI, 3. zbk.
- The Editors, "Globalization to What End?", *Monthly Review*, XLIII, 9.zbk, 1992, 1-18.
- Velasco, L., (1992): "Ser de izquierdas", *El Mundo*, 1992-11-6, 70. or.